

3. ildoak: EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK UDALEKO ETA BERE AUTONOMIADUN ERAKUNDEETAKO LANGILEENTZAT ETA ZINEGOTZIENTZAT

1. HARTZAILEAK

- Euskara ikastera doazen Getxoko Udaleko langileak eta Udaleko autonomiadun erakundeetako langileak.
- Getxoko Udaleko zinegotziak.

2. IKASTAROAK

- Diruz lagunduko direnak HABEk homologatutako ikastaroak izango dira (**IKUS oinarri orokor hauetako 3.1 puntua**).
- Ikastaroak, HABEk homologatutako euskaltegietan egin beharko dira.
- Barnetegien kasuan ez dira egonaldiko gastuak ordainduko.

3. BALDINTZAK

- Ikastaro presentzialetan: eskatzaileak, gutxienez, euskaltegian hartutako eskola-ordu guztien **%75era** joan dela egiaztatu behar du.
- Auto-ikaskuntza bidezko ikastaroetan edo mistoetan: **Mintza-saioetan** izandako asistentzia orduekin, gutxienez, **ikastaroaren ordu teoriko guztien % 7,5era iritsi**.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

4.1.- Dirulaguntza eskaera

Dirulaguntza eskaera - Euskara Zerbitzua izeneko inprimakia beteta (ikus eranskina), kontu korrontearen zenbakia (**IBAN kodeari dagozkion 24 digitu**) jasota utziz.

Zerga betebeharrak egunean izatea: eskatzaileak besterik adierazten ez badu, Getxoko Udalak ofizioz ikuskatuko du eskatzaileak ez duela zorrik Gizarte Segurantzarekin, Bizkaiko Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin.

Zerga-datuez gain, Getxoko Udalak diruz laguntzea eskatzen den ikastaroari buruzko datuak eskatu ahal izango dizkie beste administrazio edo erakunde batzuei (HABE, euskaltegiak...).

Eskatzaileak kontsulta hauen guztiak edo zati batzuk ikuskatzearen kontra dagoela adierazi ahal du eskaera orrian bertan. Aurka dagoela adierazten badu eskaera elektronikoan erantsi beharko ditu eskatzen zaizkion dokumentuak.